

## KOSTUAK

Proiektu hau aurrera eramateko, kostu asko ordaindu beharko ditugu. Kostu batzuk hilabetero berdinak izango dira, hau da, kostu finkoak izango dira. Hemen, lokalaren kostuak, webgunea sortzeko gastuak, soldatak eta makineria sartuko lirateke.

Lokala, gure produktuak gordetzeko tokia, Zarauzko Abendaño industria eremuan edukiko dugu, honek 700€ kostua edukiko du hilabetero. Webgunea shopify izeneko plataforma batekin sortuko dugu, dagoen modu errezena da denda online bat egiteko, honek hilabetean 29€ balio du. Gainera, 4 langile edukiko ditugu eta bakoitzak 1400€ko soldata edukiko du.



Bestalde, enpresak edukiko dituen gastu batzuk aldatu egingo dira faktore desberdinen arabera, kostu horiek aldakorak izango dira. Hala nola lokaleko gastuak, (argia, ura...), hornitzaileei ordainduko dieguna; motorra bera, gehi egokitzeko beharko genituzken piezak eta garraio kostuak.

Lokaleko gastuak faktore askoen arabera izango dira. Argiak 3.5 € orduroko kostua du eta uraren kostuak 3€ litroko dira. Bestalde, garraio kostuak orduko 15€ko kostua edukiko du. Azkenik, pieza bakoitzak kostu desberdinak edukiko du, hauen bates bestekoa 8.5€koa da.